

Ongi etorri ikasturte berri honetara. Uda zoragarria igaroko zenuen esperantzarekin agurtzen zaitugu, ikastolako ateak berriz ere parez pare zabalik izanik ilusioz eta erronka berriei aurre egiteko prest. Horrela, esan dezakegu gainditu ditugula behingoz obrek ekarri dituzten gorabeherak. Izan ere, etengabeko hobekuntza-prozesuan murgildurik gaudenez, helburu dugu baita apurka-apurka ikastola seguruagoa, gardenagoa eta hobe eraikitzea ere, eta uda honetan ere ekin behar izan diogu horri. Fidagarritasuna eta konforta irabazteko asmoz, alde batetik, berriztu eta irazgaiztu egin da Haur Hezkuntzako kanpoko patioa; bestetik, eguzki plakak instalatu dira; eta, beste alde batetik, berriztu egin dira gas-galdarak. Horretaz gain, idazkaritza berria prestatzen ari gara, eta sarrera nagusi berria kokatuko dugu. Amaitzeko, solairuz aldatu dugu liburutegia, eta, horrela, handiagotu egin ditugu Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gela pare bat. Bide beretik joango dira hurrengo urteetako pausoak.

Ikastolak beti bilatzen du ikasle bakoitzarentzat onena den hori, indibidualki zein kolektiboki. Orain aipatu ditudan aldaketa arkitektonikoez ongizatea hobetzeko asmoa daukate. Arlo pedagogikoari mesede egiten dion euskarri bat da hori guztia, baina ez bakarria. Dagoeneko badira zortzi urte proiektu hasi ginela lanean, baina azken urteotan eman diogu bultzadarik handiena *Ikasjaia* sortuz –familiak parte aktibo izan daitezten– eta gaiak mailaz maila egituratuz –zentzu koherentea izan dezan–. Aurten LOMLOE lege berria jarri da indarrean, eta hark konpetentziak lan egiteko metodologia ezartzen du hezkuntzan. Asko pozten gaitu horrelako legeak aurrera doazela ikusteak, berretsi egiten duelako zuzena izan zela bere garaian guk egin genuen apustua.

Familiak parte aktibo izatea aipatu dugunez, berreskuratu nahi ditugu orain arte helburu horrekin egin izan diren ekintzak: Ni eta nire familia; Goiz bat gelan; Jantokiko jardunaldi irekiak; Ikasjaiak... Hezkuntza Proiektua erakusteko erarik eraginkorra zuzenean ikusi eta bizitzea da.

Aurten ere tinko jarraituko dugu Roberto Agudoren VEC metodologiarekin irakasleentzako begirada emozioetan oinarritzeko, eta ez bakarrik arlo akademikoan. Ikasleentzako ongizatea bermatu nahi duen metodo horrekin, prebentzioa landu nahi da, eta tutoreak —egunero ikasleekin gelan dagoenez— ahalik eta azkarren antzematea ikasleentzako zurruntasun emozionalak.

Ahaleginik handiena egingo dugu edozein arazoren edo kezkaren aurrean gaia aztertu eta konpontzeko. Horretarako, gugana jo dezakezue ezer behar duzuenetan. Izan ezazue konfiantza gure ekimenetan, egiten dugun guztia beti ikasleentzako ongizatea bermatzeko baita.

Ikastola osatzen dugun guztion aldetik, ikasturte ona opa dizuet.